


Enpresa eta erakunde onuradunak

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzaileak.

Hurrengo hauek izan daitezke onuradun:

- Bitartekaritza-zerbitzua ematerakoan, enplegu-eskaintzak erregistratzearekin eta kudeatzearekin bakarrik lotuta dauden jarduerak egiteko baimena dutenak, 2015eko urtarrilaren 23ko Ebazpenaren babespean (2015eko otsailaren 2ko EHAA).
- Hona zentro laguntzaile izendatu daitezkeen erakundeak, deialdi honi lotutako lan-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, betiere baldin eta egoitza EAEn badaude:

- 
- Unibertsitateak.
 - Lanbide-heziketako ikastetxe publikoak eta itunpeko pribatuak.
 - Lanbide-Euskal Enplegu zerbitzuaren zentro eta erakunde laguntzaileak, 2014ko deialdiari dagozkion lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.
 - Udalak, mankomunitateak, koadrilak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

** Erakunde bakoitzeko gehienez 3 lagun izendatuko dira funtzio horiek egiteko.*

** Ezinbestekoa izango da Lanbidek emandako prestakuntza saioetara joatea eta bertan ikasitakoa baliatzea. 2014ko deialdian baimena jaso zuten zentro laguntzaileentzat izan ezik, baldin eta eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko jarduerak egiteko baimena jaso zuten pertsona berberak badituzte.*

Diruz lagun daitezkeen ekintzak

Enplegu-eskaintzak biltzea, erregistratzea eta kudeatzea, azkenean deialdi honen babesean diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatzen badira.

Epeak

1. Eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko zentro laguntzailea izateko eskatzeko: Hilabetea, deialdi hau EHAA-n argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
1. Enplegu-eskaintza bildu, erregistratu eta kudeatzeko, 2015eko azaroaren 30a baino lehen (diruz lagundutako kontratua formalizatzeko azken eguna).
2. Dagokion diru-laguntza eskaera: 2016ko urtarrilaren 2tik 29a arte.

Diru-laguntzaren zenbatekoa

Eskaintza biltzea eta erregistratzea	120 euro
Eskaintza kudeatzea	80 euro

Diru-laguntzak ordaintzea

Ordainketa bakarra, laguntza emateko ebazpena eman ondoren.